

Lasarte-Oriako pailazoez BEC-a bete egin zuten

Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin batera Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako talde bat egon zen

Eguberriak beti dira bereziak, baina Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoentzat are gehiago. Urtero saioa estreinatzen dute aro honetan, eta herriz herri ibiltzen dira. Aurtengain Pirritxen bikiak, Pupu eta Lore aurkeztu dizkiete hainbat herritan bildu dituen haur eta gurasoei.

Eta ekitaldi horien guztien artean, abenduaren 26an, BECen emandako bi saioak nabarmentzen dira. Izan ere herriko pailazoez 11.000 haur eta guraso izan zituzten ikusle.

Laguntzaile bereziak

BECeko atek saioa baino ordu bete lehenago ireki ziren.

Sarrera pixka bat girotzeko eta bide batez Iriren lagun klubeko informazioa banatzeko, laguntzaile berezi batzuk izan zituzten pailazoez, Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolako 15 lagun inguru.

Pailazoz jantzita jendea harrera egin, klubaren informazioa eman eta arkuak jarri zituzten. Gainera, Tolosako Bonberenea txarangaren laguntza izan zuten, hauek musikarekin dantzan jarri baitzituzten inguruko guztiak.

Saioan dantzan

Saioan zehar gonbidatu ugari izan zituzten Pirritx, Porrotx eta Marimototsek eta horietako bat herriko eskolako clown taldea izan genuen.

Amateria aldera, Iriren Lagunak abestia hasi aurretik hain zuzen ere, Kukukako kideak oholtzara igo ziren. Kukukako pailazo batek agurrak dantatu eta ondoren kide guztiak amateria arte dantza egin zuten pailazoez batera oholtzan.

Azkeneko abestian gainera, Bilboko konpartsen ordezkari bana ere igo ziren dantzara. •



Harrera berezia egin zieten Kukuka eskolako pailazoez BECera joan ziren guraso eta haurrei, arkuak jarriaz.



Pirritx, Porrotx eta Marimototsekin eta saioetan parte hartu zuten guztiak argazkia ateratu zuten Kukukako lagunek.



Lasarte-Oriako etxebizitzaren ordenantza berriak dituen aldaketak /3

KIROLA /6

Buruntzaldeko Igeriketa taldeko gaztetxoek markak hobetu zituzten Anoetako Neguko Sarian



Eguberri hauetan Lasarte-Orian egon diren ekintzen errepasoa /4-5

• TB/HI-FI
• Instalazio elektrikoak

- Material elektrikoak
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak

ELEKTRIZITATEA
ARREGUI

Kale Nagusia 39 • Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521 • LASARTE-ORIA

BERTAKO FABRIKAZIOA
Solomoa baratxuritan-Baserri pateak
Odolkia- Solomo ontzutua
Tripakiak- Saltxitxak
Etxeko txorizoa

Txistorra  Basurde burua

ADURIZ DE LASARTE S.A
Loidi Barren kalea 3 • Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451
Lasarte-Oria

Neure kabuz



2011

Urte berriaren etorrera zoriontzen dugu elkar egun hauetan eta ez da gutxiagorako, urteak betetzeko aukera gero eta "garestiagoa" dela pentsatzen dut eta, beraz zorionez zoriontzen ditut gertukoak. Istri-puak, ezusteko ezberdinak, gaixotasunak, erailketak,... eguneroko ogia ditugu tamalez.

Bi mila eta hamaikagarren urtea hasi berri dugun honetan ohiko legez pasatako urtearen balantzearekin bat berriaren asmo eta desira ugari nagusitzen zaizkit. Urteko sasoi aproposa da esperantza eta promesa ezberdinak egin eta gertukoekin konpartitzeko.

Herriari begira 2011erako espero ditut aldaketak. Konpartitzekoan bi hauek: udal gobernu ordezkaritza ezberdin bat maiztzean. Ordezkaritza herritar eta euskaldun batez osatua (eta euskaltzalea) eskatzekotan. Herri erdiguneko eraberritze lanak amaitu eta herriak berriz, eta ekainean bereziki San Pedro jaien topaleku bihurtzea Okendo plaza.

Orokorrean guztiontzat osasuna, maistasuna eta alaitasuna. Beste gauza askoren artean niretzat oso garrantzitsuak.

Oraindik orain denak ikusteko eta betetzeko daude/ditugu beraz esperantzarekin norbanakoen asmoei heldu eta ahal bezain zoriontsuen izaten saiatzea opa dizuet. **ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!!**

Ainara Lasar

Zorion-agurrak



Eneko

Zorionak eta muxu handia aitona-amona eta izeba-osabaren partetik.



Unai

Zorionak etxeko txikiari eta txokomarrubizko 5 muxu pottolo. Oier, aitaixo eta amaxo.



Johana

Zorionak "Antonella" zure 9. urteurrenean. Ondo pasa Saioa, gura-soak eta familia.



Jon

Zorionak eta ondo pasa zure 9. Urtebetetzearan guztion partetik



Inge

Zorionak *corazoncito*. Musu erraldoi bat den dena zuretako. Amatxo, aitaixo eta Ximon.



Iker

Zorionak Iker! Gaur gauen "txintxo" ibili erregeak zure etxetik ager daitezke!



Iñaki

Urtea hasteko modu bikaina bai! Zorionak jaiguneko laguneren partetik!



Alazne

Zorionak "mako"! Txokomarrubizko muxuak gure partetik! Ah! Eta txintxurri izan!

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 gela, sala, sukalde, komuna eta trastelekuarekin. Dena berritua eta altzariz jantzia. 3 balkoi eta oso eguzkitsua. Igogailua ere badu. 246.500 euro. Tel.: 686 969 112.

• Lasarten logela alokatzen da pisu konpartitu baterako. Interesaturik daudenak 600 612 085 telefono zenbakira deitu dezakete.

Lan-eskaintzak

• Martxan dagoen eta bezeroak dituen ile-apaindegi bat alokatu nahi dugu Lasarte-Orian. Informazio gehiagorako deitu 665 701 023 telefono zenbakira.

Lan-eskariak

• Pertsona bat eskaintzen da helduak zaintzeko, garbiketa lanetarako, etxeko lanak egiteko... interna moduan edo orduka. Tel.: 697 608 202.

• 40 urteko pertsona arduratsua eskaintzen da lan egiteko. Marmol eta granituan aditua eta soldaduraren jantzia. Interesatuak deitu 656 776 445 edo 650 898 817 zenbakietara.

• Lasarte-Oriako neska gazte bat kurtsoan zehar lana egiteko, bai umeak zaintzen edota klase partikularrak emateko eskaintzen da. Interesatu dagoena 677 823 141 telefono zenbakira deitu dezala.

Oharra jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 7

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

Larunbata, 8

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Igandea, 9

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astelehena, 10

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteartea, 11

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteazkena, 12

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 13

Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucha, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Hiribusaren ordutegia Lanegunetan



Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras	Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras
7:45	7:55	8:00	8:05	14:15	14:25	14:30	14:35
8:15	8:25	8:30	8:35	14:45	14:55	15:00	15:05
8:45	8:55	9:00	9:05	15:15	15:25	15:30	15:35
9:15	9:25	9:30	9:35				
9:45	9:55	10:00	10:05	16:15	16:25	16:30	16:35
10:15	10:25	10:30	10:35	16:45	16:55	17:00	17:05
10:45	10:55	11:00	11:05	17:15	17:25	17:30	17:35
11:15	11:25	11:30	11:35	17:45	17:55	18:00	18:05
				18:15	18:25	18:30	18:35
12:15	12:25	12:30	12:35	18:45	18:55	19:00	19:05
12:45	12:55	13:00	13:05	19:15	19:25	19:30	19:35
13:15	13:25	13:30	13:35	19:45	19:55	20:00	20:05
13:45	13:55	14:00	14:05	20:15	20:25	20:30	20:35

Jaiotzak



- Pablo Arregui Galilea, abenduaren 28an
- Nikolai Izagirre Gujjarro, abenduaren 23an
- Karla Jimenez Palacian, abenduaren 18an
- Xabat Martin Mariezcurrena, abenduaren 17an
- Laia Peña Moriche, abenduaren 17an
- Aimar Moriana Garcia, abenduaren 14an
- Yara Manceda Echeverria, abenduaren 13an.

Heriotzak



- Eduardo Hernado Ramos, abenduaren 29an 87 urte zituela
- Estanislao Puertas Geanines, abenduaren 26an 79 urte zituela
- Juan Becerra Lendinez, abenduaren 24an 85 urte zituela
- Isabel Sasiain Ormazabal, abenduaren 24an 93 urte zituela
- Jose Luis Urruchua Martin, abenduaren 21an 70 urte zituela

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea**



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



**EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA**

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikulueta eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Etxebizitzen ordenantzako aldaketak

Etxebizitzen eskatzaileen erroldan baja emateko arrazoiak, zozketa sistemaren arauak eta behin behineko zein behin betiko esleipenen arauak aldatu dira

Lasarte-Oriako Udaltzarrak, 2010eko azaroaren 11an onartu zuen Babes Publikoko Etxebizitzen Erregimena arautzen duen ordenantzaren aldaketa. Abenduaren 29an, argitaratu zen GAO, eta Udaltzarrak adostutako testu berria indarrean dago jada behin jende aurrean egoteko eta oharpenak zein erreklamazioak egiteko epea igaro eta gero. Ez da eta oharpenik edo erreklamaziorik egon.

Etxebizitzen eskatzaileen erroldan baja emateko arrazoiak, zozketa sistema eta behin behineko eta behin betiko esleipenen arauak aldatu dira.

Erregistroan baja

Salbuespenak salbuespen, hauek kontuan izan gabe, bi etxebizitza-esleipeni esanbidez uko egitea edo etxebizitza bakarrari isilbidez uko egitea erregistroan baja emateko arrazoiak izango dira.

Era berean, etxebizitza onuradun izateari uko egiten dionak ez du bi urtetan beste prozedura batean parte hartzeko aukerarik izango. Beti ere, eskatutako etxebizitza mota eta erregimena bakarra



Hemendik aurrera, zozketa bakarra izango da eta zerrendatan onuradunetz gain, dagokien etxebizitza eta horren datuak egongo dira.

ez bada. Kasu honetan erregistroan baja emango zaio zuzenean.

Zozketa eta zerrenda

Honetaz gain, etxebizitzak esleitzeko zozketa bakarra egingo dela azaltzen da arau berrietan eta, era berean, zozketa sistema finkatzen da.

Hau da, azaroko zozketan Udalak erabilitako sistema erabiliko da eta ondoren, zozke-

tako hurrenkeraren arabera, behin behineko esleitu dira kupo bakoitzeko etxebizitzak.

Eta gainera, zozketa horren emaitzetan oinarrituta itxaron zerrenda bat sortuko da.

Zerrenda horretan dauden pertsonak aukera izango dute esleipedun batek baldintzak betetzen ez baditu, norbaitek esleipenari uko egiten badio, beste promozio batetako

esleitu batek uko egiten, baja ematen edo baldintzak betetzen ez baditu.

Alokairuko etxebizitzaren eskatzaileen zerrenda titularrak etxebizitza zesioan ematen dueneko kasuan erabiliko da.

Gainera, mugikortasun urritu iraunkorra duten pertsonen erreserbatutako etxebizitzak eskatzaile ezagatik esleitu gabe geratzen badira,

Etxebizitza erregistroan eskatzaile gisa ageri eta araudia betetzen duten mugikortasun urritu iraunkorra dute pertsonak hautatuko dira eta zozketa bidez, erabakiko da nork eskuratzen duen.

Esleipenak

Behin behineko eta behin betiko esleipenen arauetan ere aldaketak ageri dira.

Behin behineko onuradunen zerrenda jakitera emango da, baita hauei dagozkien etxebizitzaren datuak ere.

Eta hauek, hamabost eguneko epea dute etxebizitza onartu edo ukatzeko.

Ostean, onuradunak promozio eta Udalaren eskakizunak betetzen dituela frogatu behar du.

Dokumentu guztiak aztertu ostean, onuradunen behin betiko zerrenda jakitera emango da.

Kontratua sinatzeko garaian, Udala edo enpresa sustatzailea bi alditan saiaturiko da harremanetan jartzen. Onuradunarekin hitz egin ez bada edo sinaketa ekitaldira agertzen ez bada, esleipena indargabetu eta uko-egite bezala aintzat hartuko da. •



Maila handia jaiotza lehiaketan

Danok Kide elkarteak antolatu duen XVIII. Jaiotzen lehiaketako sari banaketa burutu zen, abenduaren 2an, igandean, Danok Kideko egoitzan dagoen Jaiotza Erraldoian.

Lehenik, Ixabel Zuaznabarrek ongi etorria eman zien sari banaketara hurbildu ziren guztiak. Jarraian, Julio Valiente eta Paco Hita Danok Kide elkarteko kideek Pilar Domingo eta Eva Lizarraga lehiaketako epaileen iritzia jakitera eman zuten.

A kategorian, 6 eta 9 urte

arteko irabazleak Pablo eta Javier Herreros izan ziren eta bigarren postua, Adriana Lopezentzat izan zen.

10 eta 13 urtekoen B mailan Oscar Garridok lortu zuen garaipena eta Aitziber Rubio Aramendi eta Igone Gonzalez izan ziren bigarrenak.

14 eta 17 urteko gazteen artean, berriz, Mario Garrido izan zen lehenengo saritua eta J. M. Mongeren ikasle diren Ainara Martiarena, Koldo Martin, Amaia Figuera, Ander Lopez, Frank Izquierdo, Miguel Ruiz, Natalia Ruiz eta

Haizea Alvarezek osatutako taldeak bigarrena.

Azkenik, 18 urte gorakoean, Isa Fernandez de Aguirren jaiotzak Arantza Diezena garaitu zuen.

Hala ere, nahiz eta sari potolorik ez lortu, jaiotzak aurkeztu zituzten guztiek kontsolazio saria izan zuten.

Eta horien artean, antolatzaileek aurtien aurkeztu diren jaiotzen maila azpimarratu zuten eta aipamen berezia egin zioten Jon Lasa musikariak aurkeztutako jaiotzari, hain zuzen ere. •

UDALA

Bakezko epaile postua

Bakezko Epaile Titularraren eta Ordezko Epailearen karguak betetzen dituzten pertsonen agintaldia amaitu da. Horregatik, Lasarte-Oriako Udalak hamabost egun balioduneko epea ireki du, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarpena argitaratu zen egunaren hurrengotik kontaktzen hasita, hau da, G.A.O., 245 zkia., 2010eko abenduaren 24koa, interesaturik dauden hautagaiek, eta eskaturiko legezko baldintzak betetzen dituztenek, eskaera aurkeztu dezaten.

Hautagaiek Udaleko Pertsonal sailean aukera dute espediente aztertu eta halaber behar duten informazioa eskuratu eta eskabidearen eredia jasotzeko. Hori aurkezteko epea 2011ko urtarrilaren 14an amaituko da. •

IKASTAROAK

Kutxa ikasgelak 2011 ikastaroetan izena emateko epea astelehenean irekiko da

Kutxak antolatzen dituen Kutxa Ikasgelak 2011 egitasmoaren barruan lehenengo seihilabetekoan egingo dituen ikastaroen izena emateko epea urtarrilaren 10ean, astelehenean irekiko da.

Lasarte-Oriako bi ikastaro, Soinketa pilates metodoaren bitartez eta yoga eskaintzen ditu egitasmo honek. Horretarako Danok Kide elkartearen eta Sanatana Dharma elkartearen laguntza du.

Egitasmoa Kutxaren Gizarte ekintza atalak lagundua dago eta Gipuzkoa osoan arlo guztietako 495 jarduerara antolatuko dira. Hauei buruz gehiago jakiteko Kutxako bulego batean Kutxa Ikasgelak 2011 liburuxka eskatu dezakete interesaturik.

Bi baldintza bete behar dira ikastaro hauetan parte hartu ahal izateko, 16 urte baino gehiago izatea eta kutxan kontua izatea. Interesaturik internet bidez, www.kutxasocial.net edo 902 540 040 telefonora deituta, astelehenean ostiralera, 8:00etatik 14:30era eman dezakete izena. •



Olentzero herrian zehar paseatu zuten Landaberri ikastolako haurrek.



Ogi Berriko madalenak herritarren artean banatzen ikusi genuen Olentzero

Giro onean eman zitzaien ongi-etorria Gabon jaiei

- Herriko hainbat taldek kaleak musikaz bete zituen 24an
- Goiz eta arratsalde z gero ederra izan zen herriko kaleetan

Gabonak pasa dira! Hainbeste, jan, edan, eta kantatu ostean normaltasunera bueltatzeko garaia iritsi zaigu. Baina aste betean bizi eta gozatutako guzti hori ahaztu gabe. Lasarte-Orian giro ederra izan da egunotan, eguberri bezperan talde ugari izan ziren kalean alaitasunez kantuan herrian giro berezia jarriaz. Urte hasiera honetan gure gogora ekarri nahi izan ditugu irudi horiek berriro.

Urtero bezala, talde asko atera ziren abenduaren 24an herriko kaleetan zehar zein baserrietatik gabon kantak abestera.

Goizean goiz

Goiztiarrenak Zabaleta Auzokoak izan ziren, goizeko 10:00etan abiatu ziren kazkabar zaparrada baten ondoren herriko kaleak euren doinuekin alaitzeko.

Gero Landaberri ikastolako haurrak ikusi genituen herrian zehar Olentzeroren laguntzaz giroa berotzen.

Naximentuaren lagunak taldekoek ere ez zioten urteroko zitari huts egin: euren jaiotza kaleetan zehar eraku-

tsiz kantuan ikusi genituen goizean zehar eguraldi euritsuari aurre eginez.

Olentzero Ogi Berri okindegiko furgoneta zaharrean etorri zen Lasarte-Oriara. Madalena goxoak banatu zituen hurbildu ziren guztien artean. Gainera, antzinako garaietako ibilgailuan agertu eta bertan ibili zen goiz guztian zehar.

Kantuari eutsiz

Arratsaldean ez zen Gabon giroa apaldu Lasarte-Orian, eta ohiko beste talde batzuk ibili ziren kaleetan zehar. Eguraldi aldakorrari eta hotzari aurre eginez giroa berotzen aritu ziren hainbat talde.

Erketzeko kideak, aldiz, baserrietara jo zuten Gabon kantak herriko kaleetatik urrun bizi direnei eskaintzeko asmotan.

Alboka abesbatzakoak ere kantuan aritu ziren Eguberri bezperan. Atsobarren hasi ziren gero erdigunera eginez.

Gazteak animatuak

Ohiko taldeez gain gazte koardila batzuk ere ikusi genituen herriko kaleetan kantuan eta dantzan. Guztiak baserrietarrez jantzita Gabonei ongi etorria emateko.

Euria eta hotza albo batera utzita, herritar asko ibili ziren erdiguneko kale eta tabernetan gabon eguneko eta lagunarteko giroaz gozatzeko.

Egurditik aurrera herriko kale eta tabernak jendez bete ziren. Baina arratsalde-gau partean, guztiok barneratu ginen familia giroan urtero bezala, txintxo txintxo, herriko kaleak hustu eta familiarrekin afaltzeko etxera abiatuz. Gauerditik aurrera berriro, ere festa izan zen nagusi herriko kaleetan. •



Adin guztietako herritarrak bildu ziren Erketzekoekin baserrietan kantatzeko.



Alboka Abesbatzak urtero bezala ez zuen bere zitara huts egin.



Naximentuaren lagunak urteroko alaitasuna atera zuten herriko kaleetara



Dantzetzeko gogoekin ikusi genituen neska hauek.



Etxeko gaztetxoek baserrietarrez jantzita atera ziren



Zabaleta auzoko lagunak euriari aurre eginez atera ziren kantatzera

Ekitaldi ugari Atsobakarren

Atsobakarreko egoitzako herritarrak ere, egun berezi hauetako giroaz gozatzeko aukera izan dute. Ekitaldi eta ekintza ugari izan dituzte bi aste hauetan, besteak beste, abesbatzen bisitak, aerobik erakustaldia, batuka ekitaldia,... eta nola ez, urrutiko Errege Magoen opariak ere jaso zituzten urtarrilaren 5ean.

ITXASO MORENO

Urteari amaiera ederra eta hasiera ezinhobea eman diote Atsobakarreko Egoitzan. Urtea agurtzeko ekitaldi ugari antolatatu zituzten zaharren egoitzan. Eta urteari hasiera antzera eman zioten, gainera hiru erregeen bisita jaso zuten eta hainbat opari utzi zizkien bertan bizi direnei.

Abenduaren 23an burutu zen petanka txapelketarekin eman zitzaion hasiera Gabonetarako Zaharren egoitzan prestatutako egitarau zabalari. Lehen ekitaldi honetan, eduki pasa zuten Atsobakarren dauden aiton/amonek euren sendeekin batera.

Abenduaren 24a ekitaldiz josia iritsi zen. Goizean besarkatze-terapiari esker barrea izan zen nagusi Atsobakarreko areto nagusian.

Bazkalduta eta ohiko atsedeenaren ostean, Gabon kantak entzuteko parada eduki zuten. Jaiotza biziduna prestatu zuten eta Eguberrietako postalak ere banatu zituzten. Eta eguna ondo amaitzeko Gabon Gaueko afari bikainaz gozatzeko aukera izan zuten.

Abenduaren 26an Senblante Andaluz taldeak ekitaldi polita eskaini zien.

Hurrengo egunean, Biyak Bat elkarteko abesbatzak Gabon kantak ekarri zizkien bertaraturakoei. Eta abenduaren 28an, aipatutako elkarte honetako soinketa sailekoek aerobik erakustaldia egin zuten Atsobakarren. Honekin amaitu ziren 2009koak.

Urtarrilaren 3an, 2011ri ongi etorri emateko Zentro Zibikoko batuka taldeak jo zuten egoitzan. Eta hilaren 5ean, Erregeek opariak banatu zituzten guztientzat. •



Biyak Bateko aerobik taldekoek sasoi ederra mantentzeko egiten dituzten ariketen erakustaldia egin zuten.



Errege eguneko bezperan, bisita berezia izan zuten Atsobakarren, Errege magoak. Bertako guztiei opariak eman zizkieten.

Herriko preso politikoaren bertso, ipuin eta poemen errezitaldia Xirimirin

Herriko preso politikoek beste urte bete kartzelan eman dutela gogoratu eta salatuz hainbat ekintza antolatatu dituzte euren sende eta lagunek egun hauetan, besteak beste, euren aldeko brindisa eta manifestazioa abenduaren 24 eta 31an hurrenez hurren, baina ekitaldirik berezi eta seguraski hunkigarriena gaur bertan, urtarrilaren 7an burutuko da arratsaldeko 19:30ean hasita Xirimiri elkartearen: urteari hasiera dotorea emateko, Lasarte-Oriako preso politikoaren poesia, kontakizun eta bertsoen errezitaldia egingo da.

“Harresi guztien gainetik, sarraila guztien azpitik” izenburua jarri diote gaur burutuko den ekimenari. Kartzelatik aurten iritsitako bertso, olerki eta kontakizun ezberdinen errezitaldiaren ondoren Xirimiri elkartearen bertan afalduko

dute ekimenean parte hartu dutenek. Nahi duten guztiei irekia dago afaria.

Gaur egingo den ekimenarekin, herritik urrun badauzkate ere herritarrekin lotura dutela eta herriko bizitzan presentzia dutela aditzera eman nahi dute antolatzaileek.

Hauk aurreratu dutenez, gaur arratsaldeko ekimena ez da ekintza isolatua izango, eta kartzelatik testu gehiago iristen diren heinean beste bertso, kontakizun eta olerki errezitaldiak burutuko dira. Hori adierazi dute antolatzaileek, horrela, tarteka ekitaldiak eginez, elkarren berri izateko bide horri bizirik eutsiko zaio.

Presoen aldeko brindisa

Herriko preso politikoak ez ahazteko, urtero bezala abenduaren 24an Lasarte-Oriako preso politikoaren sende eta lagunak ohiko brindisa anto-

latu zuten Okendo kalean. Jende ugari bildu zen bertan egun hauetan herrian egotetik ez duten lasarteoriarrak oroitzeko eta ahazten ez dituztela erakusteko.

Ane Labaka herriko bertsolariak bertso batzuk kantatu zituen bildutako guztien aurrean eta Beñat Iriondok, hurbildutako guztiei eskerrak eman eta preso politikoaren sendeek egun hauetan bizi dituzten uneak ekarri zituen gogora, izan ere, Gabonak familiartean igarotzeko egunak diren heinean, eurek sende bat urrutiti dute eta.

Urteari agur

Urteko azken egunean ere Okendotik abiatuta Euskal Presoak eta Iheslariak etxera hurbiltzeko eskatuz hainbat lagunek herriko kaleak zehar-katu zituen. Hainbat lagun elkartu ziren abenduaren 31 arratsaldeko manifestazioan. •



Gabon gauean, presoen aldeko brindisa egin zen Okendo plazan.



Gabon zahar egunean, presoen aldeko manifestazioa, Okendotik abiatuta.

Kiroletako agenda

I FUTBOLA I

Larunbata 8

11:00etan, Ostadar - Euskalduna (Infantil txikiak, kopa) Michelinen.
 12:30etan, Ostadar - Sporting de Herrera (Kadeteen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinen.
 14:00etan, Ostadar - Hernani (Partehartze infantil) Michelinen.
 15:30etan, Ostadar - Real Union (Jubenilen Ohorezko maila, igoera fasea) Michelinen.
 17:15ean, Ostadar - Beti Gazte (Erregional Goren) Michelinen.

12:30ean, Euskalduna - Ostadar (Infantil Ohorezko maila, igoera fasea) Ubitarte, Andoainen.

17:00etan, Soraluze - Ostadar (I. Erregionala, igoera fasea) Ezozia, Soraluze.

17:15ean, Beti Ona - Ostadar (Emakumezkoen kopa) Beraun, Errenterian.

Igandea 9

10:30ean, Texas Lasartearra - Añorga (I. Erregionala, kopa) Michelinen.

10:30ean, Amara Berri - Ostadar (I. Kadetea, kopa) Martutene, Donostian.

10:45ean, Intxausti - Ostadar (Emakumezkoen KDT F-11) Cesar Benito, Donostian.

15:30ean, San Patricio - Ostadar (I. Jubenila, kopa) Puio, Donostian.

I ARETO-FUTBOLA I

Ostirala 7

HERRIKO TXAPELKETA
 20:30ean, Semblante Andaluz - Indaux

Larunbata 8

16:00etan, Ignacio taberna Hondarribia - ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. maila) Hondartza kiroldegia, Hondarribian.

HERRIKO TXAPELKETA

10:00etan, Oria kris. - Buenetxea
 11:00etan, ISU Leihoak - Epel
 12:00etan, Izkiña - Ainhoa
 13:00etan, Illun - Ayete
 15:00etan, Morrison's - Izarra
 16:00etan, Naiban - Viña del Mar

Igandea 9

12:15ean, Donostia Zuzenbide / Naturgas energia ZTF - Aldaz H.K. (Nazional B maila) Santanape kiroldegia, Gernikan.

I PILOTA I

Larunbata 8

09:15ean, Intza 4 - Urnieta I (Gipuzkoako trinketa txapelketa, eskuz banaka kadetea) Trinketan.
 15:00etan, Urnieta 3 - Intza I (Gipuzkoako trinketa txapelketa, eskuz banaka kadetea) Trinketan.
 15:00etan, Intza 2 - Mundarro I (Gipuzkoako trinketa txapelketa, eskuz banaka kadetea) Trinketan.
 15:00etan, Intza 3 - Oiarpe I (Gipuzkoako trinketa txapelketa, eskuz banaka kadetea) Trinketan.
 16:00etan, Intza - Hernani 2 (Gipuzkoako txapelketa, eskuz binaka infantil) Michelingo pilotalekuan.

I TXIRRINDULARITZA I

Igandea 9

10:00etan, Bazpi Txirrindularitza eskolako gazteak pistako Neguko Sari-ko 9. jardunaldian parte hartuko dute, Anoetako belodromo, Donostian.

Buruntzaldeko Igeriketa taldeko gazteak markak hausten ari dira

Neguko nazioarteko Sarian 9 igerilarik bere marka hobetu zuten

Buruntzaldeko Igeriketa taldeko gazteek ez dute atsedetik izan Eguberrietan. Abenduaren 29an, Neguko Nazioarteko Sari-ko kanporaketak jokatu ziren Anoetako Paco Yoldi igerilekuan.

Bertan izan ziren, Borja Apeztegia eta Ruben Villalonen zuzentzen duten igeri egiteko taldeko Alazne Egiazabal, Jone Vazquez, Naroa Goikoetxea, Itsaso Tolosa eta Garazi Alkorta nesketan eta Oier Mitxelena, Haitz Mitxelena, Iñigo Ibarburu, Mikel Arribillaga eta Mikel Esnal mutiletan.



Borja Apeztegia entrenatzailea Neguko Sarian parte hartu zuten igerilari batzuekin.

Markak hobetzen

Lan ona egin zuten gazteek lehiaketa honetan, Borja Apeztegia taldeko entrenatzaileak jakinarazi digunez: Bederratz igerilarik lortu zuten beraien marka pertsonala hobetzea goizeko saioan.

Honela, Iñigo Ibarburuk 100 tximeletan 1m. 12s. 36e. denbora egin zuen, eta 100 libre proban 1m. 04s. 25e.; Mikel Arribillagak 50 bizkar proban 33s. 02e.-ko marka, 50 libre proban 28s. 31e.-koa eta 100 bizkar proban 1m. 11s. 36e. egin zituen; Jone

Vazquez-ek 50 libren 34s. 82e.-ko denbora egin zuen; Haitz Mitxelenak 50 tximeletan 30s. 03e.-eko marka eta 100 libren, berriz, 1m 02s. eta Naroa Goikoetxeak 50 bular proban 38s. 96e. ehuneko denbora egin zuen.

Hiru neska finaletan

Marka hauetaz gain, hiru emakumezko arratsaldeko finaletan egoteko txartela lortu zuten. Hauek Garazi

Alkorta, Naroa Goikoetxea eta Alazne Egiazabal izan ziren.

Alkortak 100 tximeleta proban 8. postua eskuratu zuen; Goikoetxeak 50 bular proban 7. postua egin zuen bere marka onena hobetuz eta 100 bular proban ere postu berdina eskuratu zuen. Azkenik, Alazne Egiazabalek 50 bular proban 8. postua eta 50 libre proban 7. postua egin zituen. •

Kirol jarduera konkretuetarako diru-laguntzen eskaera epea zabalik

Lasarte-Oriako Kirolen Udal Zerbitzuaren 2010-2011 ikasturteko Kirol Egitasmoak, Udalak gure udalerrian gartuko diren kirol gertakizun puntualen antolaketa diru laguntzea aurreikusten du.

Horregatik, urtarilaren 15a bitartean, interesa duten kirol elkarteentzat 2011 urterako jarduera proposamenak aurkezteko epea zabaldu da.

Era berean, eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa jakin arazi du.

Batetik, kiroleko jarduerak puntualentzako diru-laguntzak arautzeko Udalaren ordenantzak ezartzen dituen oinarriak onartzeko konpromisoa; bestetik elkarrean datuak eta azkenik, jarduerari buruzko dokumentuak, hau da, jarduerak antolatzeaz arduratzen den pertsona edo taldearen izena, antolatu nahi



Santa Pala txapelketa, esate baterako, kirol jarduerak puntualentzako bat dugu.

den jardueraren gaineko txosten zehatza, parte-hartzaileen kirol-maila, jardueraren eremua, jardueraren parte-hartzaileak, mailak eta adinak adieraziz, jarduerari ematen zaion zabalkundea, antolatu den jardueraren diru-sarreen eta gastuen aurrekontu zehatza, aurreko urtealdian gauzaturiko jardueraren memoria justifikagarria eta

aurreko urtealdiko aurrekontuaren likidazioa, behar bezala identifikaturiko frogagiriak aurkeztuz.

Erregistroan

Jardueren proposamenak Lasarte-Oriako Udalaren erre- gistroan aurkeztu behar dira hurrengo astean, astelehene- tik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara. •



Helduentzako igeriketa ikastaroan izena emateko epea gaur amaitzen da

Helduentzako hasera eta erdi mailako igeriketa ikastaroa antolatu du Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak.

Urtarrilak 12an hasi eta otsailaren 25era arte eta astean hiru egunetan, astelehen, asteazken eta ostiraletan burutuko da ikastaroa, 20:30etatik aurrera.

Izena ematea

Igeriketan trebatu nahi due-

nak gaur du kiroldegiko bule- goetara joan eta izena emate- ko azken eguna.

Prezioari dagokionez, kiroldegiko bazkidek 58,70 euro ordainduko dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 105,70 euro.

Ikastaroari buruzko xehe- tasun gehiago jakiteko Kirol- degiko bulegoetara hurbildu edo 943 376 182 telefono zenbakira deitu daiteke. •

Egunero

Erakusketa

DENBORAREN MUGETAN, Migel Angel Oriberen erakusketa ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.



Osteguna, 13

Zinea

LOS HOMBRES QUE MIRABAN FIJAMENTE A LAS CABRAS filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera 4,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.

Igandea, 16

Zinea

MIDAS ERREGAREN ALTXORRA haurrentzako filma ikusgai. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ

Harresi guztien gainerik SARRAILA GUZTIEN AZPITIK JASOTAKO HITZAK

URTARRILAREN 7an, PRESO POLITIKOEN ESKUTIK SAIO BEREZIA 19:30etan XIRIMIRI

LASARTE-ORIA
POESIA, ESKUTITZAK, BERTSOAK, KONTAKIZUN MUSIKATUAK...

ONDOREN AFARI MUNDIALA

TXARTELAK SALGAI: XIRIMIRI, ILARGI eta ARTIZARREN

GAUR, OSTIRALA 7, XIRIMIRI ELKARTEA 19:30EAN. ONDOREN AFARIA.

Kartzelako hitzak, harresi guztien gainerik, sarraila guztien azpitik

PRESOEN BERTSO, IPUIN ETA POESIEN emanaldia burutuko da gaur arratsaldean Xirimiri elkartearen eta ondoren nahi duten guztientzat afaria elkartean bertan. "Harresi guztien gainerik, sarraila guztien azpitik, jasotako hitzak" saioa antolatuko du Lasarte-Oriako presoekin senide eta lagunek, kartzelatik iritsitako hitzen errezitaldia alegia. "Kartzelako arduradunen inkomunikazio nahiak, komunikazio ahalegin bihurtzen dira. Preso dauden herritarren berri helitzen zaigu, ahoz aho gehiengotik. Eskuz esku oraingoan".

GAUR, OSTIRALA 7, XIRIMIRI ELKARTEA 19:30EAN. ONDOREN AFARIA.

Igandea, 23

Zinea

LA TRAVESÍA DEL VIAJERO DEL ALBA filma eskainiko dute haurrentzako zinea atalean. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

Osteguna, 27

Zinea

UN PROFETA filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera 4,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean

Larunbata, 29

Antzerkia

NORK IKUSI DU DULTZINEA? haurrentzako antzerkia eskainiko du Agerre Teatroko lagunek. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ



Larunbata, 22

Antzerkia

LA ÚLTIMA CENA izenburua duen Ignacio Amestoyren



antzerki lana eskainiko du Teatro de la Guindalera taldeak. Sarrera 10 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan.



Manuel Lekuona kulturetxea

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera 10:00 - 13:00 eta 16:00 - 21:00

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Telefonoa: 943 376181

Igandea, 30

Zinea

HARRY POTTER Y LAS RELIQUIAS DE LA MUERTE filma eskainiko dute haurrentzat. Sarrera, 3,30 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan.

Oharrak

Sahararen aldeko egutegia

Euskadi-Sahararen Otsailak 27 koordinadorak egutegiak jarri ditu salgai Sahararen alde. Egutegi hauek Jalgi, Obelix, Sustrai, Ilargi, Iñaki eta Artizar tabernetan egongo dira salgai 7 euroren truke. Bildutako dirua, janariaren euskal karabana antolatzen lagutzeko bideratuko da.

Kukukaren egutegia

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolaren aldeko egutegiak salgai daude 5 euroren truke Orbelar belar denda, Urruzola merterian eta Basaundiko Denda-Berrin.

Alboka Txiki Abesbatza

Alboka Txiki abesbatzak entseguak hasiko ditu, urtarrilaren 24an. 6 eta 12 urte arteko haur eta gaztetxoei irekia dago abesbatza eta ez da beharrezkoa musika jakitea. Entseguak Zumaburuko eliza

Euskal Herriko Mus txapelketa

Euskal Herriko 3. mus txapelketa abian da. Lasarte-Oriako kanporaketa urtarrilak 15ean jokatu da Xirimiri elkartearen arratsaldeko 15:30etatik aurrera.

Izen-ematea egunean bertan izango da eta bikoteko 20 euro ordaindu beharko dira.

Partehartzaile bakoitzak opari bat jasoko du eta txapelketa irabazleentzat sari galantak egongo dira.

Informazio gehiago eskuratu nahi izanezkerok www.euskalherrikomustxapelketa.com -en izango du.



azpiko lokalean egiten da, astelehenetan 19:00etatik 20:00etara. Anima zaitzete!

Alboka Abesbatza

Alboka abesbatzak 65 urte arteko herritarrek animatu nahi ditu parte hartzera. Entseguak astelehena eta oste-

gunetan 20:00etatik 21:30etara burutuko dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan. Anima zaitzete!

Aterpeko Loteria

Aterpea merkatarien elkarteak jakin arazten du, jokatuakoa-ekin sarritua izan den Loteria

Nazionala hurrengo asteko astelehen, asteazken eta ostiralean, 17:00etatik 19:00etara ordainduko dela Bideo Lagunak (Tien 21) denda.

LOKE-ko saskiak

LOKE-k Eguberriko Loteriaren zozketatzen zituen saskien zerbaki irabazleak honako hauek dira: Aginaga sagardotegian lau pertsonentzako afaria, 9.250 zerbaki (mahai teniseko atalak saldua), eta Txartel txokon lau afariak, 0.147 zerbakiari dagozkie (atletismoko sailak saldua). Sarrituak Manuel Morales-ekin harremanetan jarri behar dira, 656 715 700 zenbakira deituz.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Lasarte-Oriako milaka haur irrikitan bildu ziren Andatza plazan Olentzero ikusteko eta gutuna emateko aukera izan zuten askok.



Amaraun Ludotekako haurrek ederki abestu eta dantzatu zuten.



Pirritxen haurtxoek, Pupuk eta Lorek, Olentzero ezagutu zuten, Porrotxi esker.

Olentzerok ilusioa ekarri zuen

Pirritxen umetxo Pupuk eta Lorek, Jalguneko lagunek eta herriko milaka haurrek harrera beroa egin zioten

Xixuko, Jalgune elkarte-ko gazteak, Amaraun ludotekako haurrak, Amalurreko trikitilariak eta pandero joleak, Porrotx, Pupu eta Lore... aurten ere milaka lagun bildu ziren Olentzerori ongi-etorria emateko; Ttakun Kultur elkarteak Andatza plazan antolatutako jaialdira ez zen inor falta.

Gainera, eguraldia lagun izan zuen ikazkinak. Goizeko euri zaparradak eten eta arratsaldean, nahiz eta hotz egin, giro oso onarekin burutu zen ekitaldia.

Musika nagusi

Musika eta gabon kantak izan ziren nagusi Andatza plazan. Amalur eskolako lagunek

eman zioten jaialdiari hasiera. Aurretik, herriko kaleak girotu zituzten Andatza Plazaraino kalejira eginaz.

Ondoren Jalguneko lagunek prestatutako gabon abes- tiez gozatzeko aukera izan zuten biuldutakoek.

Eta Porrotxek bi gonbidatu berezi ekarri zituen Olentzero ezagutzeko, Pupu eta Lore, Pirritxen umetxoak.

Era berean, Amaraun ludotekako haurren trebezia ikusi zuten plazara hurbildu zirenek, oholza gainean kantuan eta dantzan egin baitzuten.

Olentzero puntual

Olentzero iristeko irrikitan ziren nagusi Andatza plazan. Amalur eskolako lagunek

Haurrek harrera beroa egin zioten. Eta oholztan hitz batzuk esan ostean, Olentzerok ume eta gaztekoek idatzitako eskutitzak eta muxuak jasoz zituen atsegin handiz.

Ume ugari bildu zen aurtengo opariaren eskutitza Olentzerori pertsonalki emateko. Badakigu eta posta nola ibiltzen den urteko sasoi honetan.

Eskutitza emateaz gain, haurrek ere bere oparia egin zioten Olentzerori eta honela, umeek maitasunez egindako marrazkiak ikusgai egon ziren Andatza plazan.

Ekitaldia amaitu eta, guztiok hurrengo egunean opariak eduki ahal izateko, Olentzero eta Xixuko lanera joan ziren azkar-azkar. •



Jalgunekoek Olentzeroren etorrera ekitaldian Xixukoren abestia kantatu zuten.



Amalur eskolako trikitilari eta pandero joleak kaleak alaitu zituzten

AMARAUN

ludoteka

! Eskulanak, lorezaintza, txotxongiloak, mozorroak, ipuin kontaketak, pijama festa...

GUAY

pasako dugu!

Ttakun Kultur Elkartea (Geltoki 4, behe) // 943 371448 // aisia@ttakun.com // www.ttakun.com